

**SAN PEDROKO JAIK:
EKAINAK 27-EKAINAK 30**

**FIESTAS DE SAN PEDRO:
27 JUNIO-30 DE JUNIO**

Ekainaren 27tik aurrera ezin izango da ibilgailuz sartu Arraunlari kalean, San Pedroko kaian, Torreatzen eta Ondartxo pasealekuan. Eta ekitaldiak bukatzen direnean, goizetan eta/edo gauetan bertakoak eta zamalanak egin behar dituztenak bakarrik ibili ahal izango dira. Hona hemen zehaztasunak:

Desde el día 27, no se podrá acceder en vehículo a las calles Arraunlari, Cantil de San Pedro, Torreatze y Paseo de Ondartxo durante la celebración de eventos, quedando restringido el paso para residentes y carga y descarga a las mañanas y/o noches una vez finalizados los diferentes eventos y concretamente:

Ekainaren 27an (osteguna) eta 28an (ostirala) Arraunlari kalea itxi egingo da 18:00etatik aurrera.

Jueves 27 y viernes 28 se cerrará Arraunlari por la tarde a partir de las 18 horas.

Ekainaren 29an (larunbata) eta 30ean (igandea) Arraunlari kalea egun osoan 10:00etatik aurrera itxi egingo da.

Sábado 29 y domingo 30 se cerrará Arraunlari a partir de las 10 de la mañana y para todo el día.

Ordutegi horiek gutxi-gorabeherakoak dira, eta Udaltzaingoa alda ditzake, trafiko eta segurtasun arrazoiak tarteko.

Estos horarios son orientativos, podrán ser modificados por la Guardia municipal por razones de tráfico y seguridad.

Ekainaren 28ko (ostirala) arratsaldeko 20:00etatik Esnabidetik aurrera bertakoen eta desgaituen ibilgailuek bakarrik sartu eta aparkatu ahal izango dute. Egun horretatik aurrera bertakoek eta desgaituek bakarrik aparkatu ahal izango dute.

A partir del día 28 de junio viernes a partir de las 20,00 horas, desde Esnabide en adelante sólo se permitirá el paso y estacionamiento de vehículos de residentes y minusválidos, siendo a partir de ese día de estacionamiento exclusivo para residentes (y minusválidos)

Bertakoak ez direnek Trintxerpeko kaian aparkatu ahal izango dute.

Los no residentes podrán estacionar en el muelle de Trintxerpe.

Bertakoek igandeko 24:00ak bitartean Hospitalilloko kaiaren barruko eremuan (Lonjako sarreratik gertuen dagoen eremua) aparkatu ahal izango dute (sarrera Esnabidetik).

Los residentes tendrán habilitado para poder aparcar al fondo del muelle del Hospitalillo (la zona más cercana a la entrada a la Lonja) hasta las 24.00 horas del domingo (entrada por Esnabide).

Arraunlari kaleko eremua, eta Antxeta eta Begihaundi inguruetako bi aldeetan ezin izango da aparkatu herri afaria hor egingo delako.

En la zona de Arraunlari más cercana a Begi-Haundi y Antxeta no se podrá estacionar para dejar espacio para la cena popular.

Eremu murriztuetako bizilagunei (Arraunlaritik aurrerakoei) gomendatzen diegu, euren ibilgailuak erabili behar badituzte, eremu horietatik kanpo eta egokitutako aparkalekuetan aparka dezatela.

Se recomienda a los vecinos de las zonas restringidas (de Arraunlari en adelante) que en el caso de necesitar utilizar sus vehículos los estacionen fuera de dichas zonas, y en los parkings habilitados.

Udaltzaingotik eskerrak eman nahi dizkiegu herritarrei, hartu diren neurriak ulertzeagatik eta horiek betetzen laguntzeagatik, izan ere, neurri horien helburua da jai-eremua handitzea eta gidarien eta oinezkoen segurtasuna zaintzea.

Informazio eta larrialdietarako telefonoak hauek dira:

PASAIKO UDALTZAINGOA: 943004300.

SOS-DEIAK (larrialdiak bakarrik) 112

Desde la Guardia Municipal queremos agradecer la colaboración y comprensión con las medidas tomadas que tan sólo buscan poder desarrollar las fiestas con más espacio festivo y mayor seguridad para conductores y peatones.

Los teléfonos de información y emergencias a su disposición son

GUARDIA MUNICIPAL DE PASAIA
943.004300

Y SOS-DEIAK (sólo emergencias) 112